

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

19/2020 Mozioa, maiatzaren 20koa, COVID-19aren ondorioz, eta aurrera begira, lehenengo sektorean hartu beharreko neurrien inguruan

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko maiatzaren 20an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

19/2020 Mozioa, maiatzaren 20koa, COVID-19aren ondorioz, eta aurrera begira, lehenengo sektorean hartu beharreko neurrien inguruan.

1. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eskatzen diete 2020ko urriaren 16tik aurrera aurreratu dezala NPBren zuzeneko ordainketen ehuneko 70, Bata-sunaren araudiak ahalbidetzen duen gisan, nekazaritzaren sektorearen likidezia handitze aldera.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote negoziatu ditzala kanpainako ekoizpen-gastuetarako diru eskuragarria izatea ahalbidetzen duten neurri finantzarioak eta zabaldu dezala Sociedad Anónima de Caución Agraria (SAECA) elkartearekin sinatutako hitzarmena.

3. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eskatzen diete jarrai dezatela zailtasunak dituzten ekoizpenen merkaturatzea eta sustapena laguntzeko neurriak hartzen, banaketa-bideak aurkitzeko, batez ere tokiko eta hurbileko kontsumoari begira.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote egin dezala komunikazio-kanpaina bat nekazaritza eta abeltzaintza ustiattegietan koronabirusa kutsatzeko arriskua prebenitzeko jarraitu beharreko protokoloari buruz, hala pertsonen osasuna bermatzearren.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 20a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA